

HERPETOLOGIA BEKA

Zientzia mailako azterlan- eta ikerketa-proiektu espezifikoean oinarriturik, eta Elkarteko kideen partehartzea eta ikerlari-belaunaldi berrien prestaketa biziagotzeko asmoz, Aranzadi Zientzia Elkartek, kanpoko anfibio espezie baten inpaktua bertako anfibio komunitatean eragindako inpaktua aztertzeko xedea duen tesia bultzatzeko, egoki iritzi dio **Herpetologia** Behatokiaren baitan lanean aritzeko **Beka** deialdirako ondoko oinarriak finkatzeari:

DEIALDIRAKO OINARRIAK

1. Beka honen esleitze-prozedura bat etorriko da publizitate, egokitasun eta merituzko printzipioarekin.
2. Euren prestaketa eta sustapen zientifikorako ikasketak gure elkartearen barruan egin nahi dituztenei Aranzadik ematen dizkien mota guztietako diru-kopuruak edota abantailak jotzen dira beka honen emaritzat.
3. Biologia edota Ingurumen Zientziak Titulua edota, horren ordean, dagokion egiaztagiria daukan orok bere burua aurkeztu ahal izango du gizabanako modura beka honetara.
4. Deialditik kanpo geratuko dira Aranzadi Zientzia Elkartek emandako beka bat baino gehiago jasotzen duten guztiak.
5. Beka onartzen denetik lanaren iraupena hamabi (12) hilabetekoa izango da eta Herpetología Behatokiko Zuzendaria den Alberto Gosá Jauna arituko da tutore gisa. Diru-iturrien eta beharren arabera beka hamabi hilabete gehiagoraino (12+12) luza liteke.
6. Bekaren zereginak, betiere kanpoko anfibio horren inguruan izango dira, haren ezaugarri zein ingurune nahiz bertako anfibio komunitatearekin duen harremana ikertzeko ere. Laborategi eta mendiko lanak tartekatuta daitezke, kanpoko zientzia-

erakunde ezberdinetan jorratuko direlarik. Laginketak hemendik kanpo, Penintsula Iberiarraren beste leku batzuetan, burutuko dira.

7. Bekaren zenbatekoa 12.000 €-ko modulu batean finkatu da. Aranzadi Zientzia Elkarteak 1.000 euroko hamabi epetan egingo du horren ordainketa.
8. Eskabideak Elkarteko Idazkaritzan aurkeztu beharko dira 2010eko martxoaren 26tik, 2010eko apirilaren 9ra arte, biak barne, ondoko dokumentazioa erantsita:
 - Bekaren eskabidea. (Idazkaritza honetan dituzue inprimakiak)
 - Eskatzailearen Curriculum vitae.
 - Espedientearen kopia.
 - N.A.N.aren fotokopia
 - Titulu akademikoen fotokopia
 - Aranzadiko bazkide-ziurtagiria
 - Eskatzaileak eginiko aurkezpen eskutitz motza, bekara aurkezteko arrazoiak azalduz.
9. Bekaren esleipendunak ondoko betebeharrak izango ditu:
 - Bekaren onarpena gehienez hamar egunetan jakinaraztea.
 - Aranzadi Zientzia Elkarteko bazkide egitea.
 - Aurreikusitako planari jarraiki beka nola ari den garatzen Aranzadi Zientzia Elkarteari noiz-behinka azaltzea.
 - Jardueraren azkeneko memoria egitea.
10. Lanak Aranzadi Zientzia Elkartearen jabetzakoak izango dira eta lan horiek edozein euskarritan argitaratu eta zabaltzeko eskubidea izango du.
11. Dokumentazioa entregatzeko azken egunaz geroztik, Aranzadi Zientzia Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak beka esleituko du 30 egunen barru gehienera.
12. Herpetología Behatokiko Zuzendaria den Alberto Gosá Jaunak eta Koordinatzailea den Xabier Rubio Jaunak osatuko dute Epaimahaia.

13. Eskatzailearen meritu akademiko eta zientifikoekin batera, haren egokitasuna eta gaitasuna ere baloratuko dira lan hau egiteko. Hautaketa egiteko garaian, beka deialdi honen alorrean sarturiko kanpoko anfibio espezieren batekin eskarmentua izatea, eta oro har anfibioen kontserbazioan esperientzia izatea, eta eskatzailea aurretik Aranzadi Zientzia Elkartearekin proiektuetan lanean aritu izana bereziki baloratuko dira. Halaber, bazkidearen antzinasuna kontuan hartuko da. Ez da baztertzeko sailkatutakoekin elkarrizketa egitea edota azterketa motz bat jartzea.
14. Zuzendaritza Batzordeak sor litezkeen gorabeherak konponduko ditu, eta dirulaguntza ondorioz gabe ere utz lezake, onuradunak bere betebeharrak beteko ez balitu.
15. Beka deialdia behin erabakita, gainontzeko hautagaiak, lortutako puntuaketaren arabera sailkatuz, 2010eko aurreko beka deialdian sorturiko beka-poltsan geratuko dira eta aurrerago sor litezken beketarako, betiere deialdi honen gaiari lotuta eta 2010-2011 denboraldien barnean, aukeratuak izan daitezke.
16. Deialdira bere burua aurkezten duen orok hemen azaltzen diren oinarri guztiak onartzen ditu.